

## GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMAKO PRESTAZIO ZORROA

2014. urte amaieran, Gizarte Zerbitzuen Erakundearteko Organoak (Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek eta EULDELe osaturikoa) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio Zorroa onartu zuten.

Honen bitartez, Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legean aurrikusitako gizartezerbitzuak eta prestazioak jasotzeko eskubidearen zehaztapen praktikoa garatzen da. Lege honen arabera, Gizarte Zerbitzuen prestazio eta zerbitzuak jasotzeko eskubidea unibertsala eta subjektiboa da. Hau da, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoaren zerbitzu edo prestazio ekonomiko bakoitza lortzeko eskubidea dute pertsona guztiek baldintza orokor eta espezifikoak betetzen dituzten heinean.

Aipagarria da akordio hau 2016-12-25ean indarrean egon behar dela. Hau da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema unibertsalizatzeko Legeak aurrikusten duen gehieneko epea.

Legea garatzeko, 2015. Urtean Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko 185/2015 DEKRETUA argitaratu zuen Eusko Jaurlaritzak. Bertan gizarte zerbitzuak eta prestazioak jasotzeko eskubidearen zehaztapena egiten da, besteak beste:

- Lehen mailako arreta: informazioa, balorazioa, diagnostikoa, orientazioa, etxeko laguntza, esku-hartze sozioedukatiboa eta psikosoziala, telelaguntza, alojamendua

- Bigarren mailako arreta: mendetasunaren, desgaitasunaren, bazterketaren eta babesgabeziaren balorazioa eta diagnostikoa, egoitzak, eguneko eta gaueko zentroak, okupazio-zentroak, atsedeen zerbitzuak, egokituriko garraioa, familian esku-hartzea eta bitartekotza egitea, familia topaguneak, adopzioa eta harrera

- Prestazio ekonomikoak: zainketak familia-ingurunean, zerbitzuari lotutako prestazioa, laguntza pertsonaleko prestazioa, bortizkeriaren biktima izan diren emakumeentzako prestazioak eta abar

Zerrenda hau osatu eta garatzeko, prestazio edo zerbitzu bakoitzaren izaera, helburua, hartzaileak, jasotzeko eskakizunak, etab. zehazten duen Zerbitzu eta Prestazioen Zorro bat egin da.

Pertsona guztiek Zerbitzu horien banaketan sarbidea izan dezaten, irizpide geografiko eta biztanle kopuruen arabera, Gizarte Zerbitzuen mapa sortu eta zehaztu behar izan da.

Gaur egungo errealitateki abiatuta, dugun lurralde banaketa, hauei dagokien plangintzak eta garatzeko dituzten aukerak hartu dira kontutan.

Adibidez, pertsona helduentzako egoitzak eta eguneko zentroak 15.000 eta 50.000 biztanle dituzten herrietan kokatzeko saiakera egin behar da. Aldiz, bazterkeria egoeran dauden pertsonentzako egoitzak, buruko gaixotasunak dituztenentzakoak, etab. 200.000 eta 400.000 biztanle arteko herrietan.

Honek esan nahi du, eskeini beharreko zerbitzu eta prestazioak zerbait herriren arteko elkarlanean eskeini beharko direla.

Guzti honekin batera, Memoria Ekonomikoa egin behar izan da. Sistemaren kostu ekonomiko eguneratua baloratu egin delarik. Honela, sistemaren kostu ekonomikoak proiektatu ahal izango dira

NORK KUDEATU?	ZEIN ZERBITZU?	ZEHAZTAPENAK
<b>Udalek</b>	Informazio, balioespen, diagnostiko eta orientabidez zerbitzua (1.1)	Definizioa eta helburuak
	Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua (1.2)	Zerbitzu/Prestazio motak
<b>Foru Aldundiek</b>	Mendetasuna, desgaitasuna, bazterkeria eta babesgabetasuna balioespeteko eta diagnostikatzeko zerbitzua (2.1)	Hartzaileak
	Adinekoentzako egoitza-zentroak (2.4.1)	Lortzeko baldintzak Eusko Jaurlaritzak
<b>Eusko Jaurlaritzak</b>	Telelaguntza-zerbitzua (1.6)	Koordinaketa
	Familia-bitartekaritzako zerbitzu integrala (2.7.3.3)	

Datu guztiak jasotzeko: [www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2015/10/1504561e.pdf](http://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2015/10/1504561e.pdf)

ezarpen mailakatuaren, bilakaera demografikoaren eta etorkizuneko premien arabera.

2011ko datuak erreferentzia bezela hartuta, 2017. urterako 1.100 milioi ingurukoa izango da Zorroan aurrikusitako garapenari eskaini beharreko kopurua. 2016. urtean Finantzen Euskal Batzordeak 10 milioi €ko kopurua bideratu du Udalerriek behar dituzten inbertsioak egiten hasteko. 2017 urteari dagokionean, ordea, Foru Aldundiei eta Udalei 20 milioi € emateko konprometua hartu du.

Aipamen berezia nabarmendu nahi genuke, lege honek Gizarte Zerbitzuen finantzaketari dagokionean, erabiltzaileen partaidetza aipatzen duela. Honek esan nahi du, eta hala zehazten da legean, zenbait zerbitzu koordainketaren bidez ere finantzatuko direla; hala nola, egoitzak, eguneko zentroak, etxeko laguntzak, etab. Betiere, hartzaileen balio ekonomikoen arabera izango delarik. Adingabeak, bazterkeria egoeran dauden pertsonak, tratu txarren biktimak, etab.ek aldiz, ez dituzte beraiei bideratutako zerbitzurik koordaindu behar izango.

## CARTERA DEL SISTEMA VASCO DE SERVICIOS SOCIALES

Se trata de una Cartera de Servicios y Prestaciones aprobada a finales de 2014 por el Órgano Interinstitucional de Servicios Sociales (formado por el Gobierno Vasco, las Diputaciones Forales y la Asociación de Municipios Vascos) como desarrollo de la Ley 12/2008.

Ésta ley establece el derecho a recibir prestaciones y servicios como derecho universal y subjetivo, equiparable al derecho a la Salud o a la Educación, cuyo cumplimiento puede exigirse ante la justicia.

Un decreto del Gobierno Vasco de 2015 detalla éste derecho de la siguiente manera:

-Atención primaria: información, valoración, diagnosis, orientación, ayuda domiciliaria, intervención socio-educativa, tele-asistencia, alojamiento...

-Atención secundaria: valoración y diagnóstico de dependencia, incapacidad, exclusión, residencias, centros de día y de noche, centros ocupacionales, servicio de descanso, transporte adaptado, intervención e intermediación familiar, lugares de encuentro familiar, adopción y acogida.

-Prestaciones económicas: para cuidados en el entorno familiar, para necesidades ligadas al servicio, para ayudas personales, para mujeres víctimas de la violencia, etc.

La misión de ésta Cartera es completar y desarrollar estos servicios teniendo en cuenta las características de cada servicio, los objetivos planteados, las situaciones personales, las características de los beneficiarios, las peticiones recibidas, etc.

Para que toda la ciudadanía tenga acceso a estos servicios se ha confeccionado un mapa de Servicios Sociales en base a la territorialidad y al número de habitantes. Se establece, por ejemplo, el desarrollo de residencias para mayores o centros de día en poblaciones entre 15.000 y 50.000 habitantes. Las residencias para personas con enfermedades mentales o para personas “en exclusión” corresponderían a poblaciones entre 200.000 y 400.000 habitantes, lo que obligará a la colaboración entre varios municipios.

Se ha desarrollado una Memoria Económica, valorando el coste actual del sistema y su proyección al futuro. Tomando como referencia los datos de 2011, el desarrollo de la Cartera para 2017 requerirá de un importe aproximado de 1.100 millones de euros. En 2016 la Comisión Vasca de Finanzas ha destinado a los ayuntamientos 10 millones de euros para empezar con las inversiones necesarias. Para el ejercicio actual se ha comprometido a destinar 20 millones a las Diputaciones y Ayuntamientos.

Quisiéramos reseñar que esta Ley, en cuanto a la financiación, menciona la participación de los usuarios; lo cual significa que algunos servicios –como las residencias, los centros de día y la asistencia domiciliaria– serán financiados mediante el copago. Esto se regulará según las posibilidades económicas de los usuarios y quedarán exentos de dicho copago, entre otros, los menores de edad y las víctimas de la exclusión social y de los malos tratos.

# 2017 UDAL AURREKONTUAK

## Aurkeztu ditugun 21 emendakinetatik, udal gobernua gidatzen duen Hondarribiko EAJk 4 onartu ditu eta “Katsikas boluntario taldea”ri diru laguntza adostu da.

- Autobusentzako aparkalekua egiteko proiektua.

- Baratzetako ur irteerak garbitzeko lanak.

- Mendelu auzoan auzolanean egiteko mural baten proiektua.

- Berdintasun Plana.

## Estas son las 21 enmiendas presentadas por Abotsanitz:

1. Autobusentzako aparkalekua egiteko proiektua: 10.000€

2. Hondartzak: Kai zaharrear eta Puntalean dutxa zerbitzua: 15.000€

3. Hondartzako horman, neguko erabiltzaileentzat aterpea: 10.000€

4. Komun publikoak Amuten, San Kristobalen eta Portuan: 180.000€

5. Haur parkeentzako estalpea: 50.000€

6. Berziklatzeko zaborrontzi sailkagarriak: 30.000€

7. Aparkalekua: Zezen plazan: 2.500.000€

8. Baratzetako ur irteerak garbitzeko lanak: 25.000€

9. Txiplau, oinezko eta bizikletentzako eremuaren proiektua: 15.000€

10. Guadalupeko iturria potabilizatzea: 5.000€

11. Alde zaharreko eremu publikoak

2017ko udal aurrekontuei 21 emendakin aurkeztu ditu Abotsanitzek, 3.220.500 €-ko balioa zutenak. Emendakin horietako batzuk Udalerrian egin beharrekoak zegozkien, udalean egin beharrekoak ziren beste batzuk eta herritar batzordeetarako eskatutakoak ere bazeuden.

herritarrei zabaltea: 10.000€

12. Santiagotxon argizatze lanak: 15.000€

13. Panel informatiboak herrian: 10.000€

14. Kaleen birgaitze proiektuak: 30.000€

15. Merkataritxikientzako diru laguntzak: 15.000€

16. Ibilgailuen gaineko zergan, famili ugari eta mugikortasun urriko ibilgailuentzat diru laguntza: 15.000€

17. Mendelu auzoan auzolanean egiteko mural baten proiektua: 3.500€

18. Mugikortasun mahaia eratzea: 10.000€

19. Amute-Mendelu bidegorri proiektua: 20.000€

20. Berdintasun plana: 6.000€

21. Hondarribia-Katsikas boluntario taldea: 6.000€

**2017ko udal aurrekontuei aurkako botoa eman dio Abotsanitzek, aurrekontu proiektu honek eta Udal Gobernuaren asmoek ez dutelako balio hondarribiarrek dituzten benetako beharrak asetzeko.** Udal gobernu honen kudeaketa aldebakarrekoa da, eta ez du bermatzen esaten dutena beteko denik. Horren adibide, 2016an aurrekontuetan onartutako proiektuetako batzuk ez direla bete, ezta Abotsanitz onartutako emendakinetatik bakar bat ere. Horrez gain, herritarrek ez dute erabakitze-ko ahalmenik. Hondarribian egin behar diren inbertsioetan herritarrek zer esana eta zer erabakia eduki beharko lukete, baina gaur egun horrelakorik egitea ez da posible.

Udalak duen egoera ekonomiko onak, bestalde, aukera paregabea ematen du hondarribiarrei zerbitzu gehiago eta hobekien eskaintzeko. Baina horretan ere ez du behar adinako ahaleginik egin udal gobernuak, eta gabezia sakonak daude. Horregatik guztiagatik eman du kontrako botoa 2017ko aurrekontuetan.

Nolanahi ere, onartutako aurrekontuak betetzen direla ikusten badugu, adostutakoa betetzen dela eta udal gobernuak elkarlanerako borondatea azaltzen badu, Abotsanitzek beste jarrera bat eduki dezake etorkizunean. Baina udal gobernuari babesa emateko aipatutako baldintzak bete beharko dira.

# 2017

## PRESUPUESTOS MUNICIPALES

**De las 21 enmiendas presentadas, el Gobierno Municipal del PNV de Hondarribia ha aprobado 4 y se ha acordado la ayuda económica a "Katsikas boluntario taldea".**

- Redactar un proyecto para habilitar un aparcamiento para autobuses.

-Trabajos de limpieza de canalización de agua en huertas.

-Proyecto de auzolan para un mural en el barrio Mendelu.

-Redactar un plan de igualdad.

### Estas son las 21 enmiendas presentadas por Abotsanitz:

1. Proyecto para habilitar un aparcamiento de autobuses 10.000€
2. Playas: Servicio de duchas en Puntal auzoa y Kai Zaharra: 15.000€
3. Cubrimiento en la pared de la playa para bañistas de invierno: 10.000€
4. WC públicos, Portua auzoa, San Kristobal, Amute: 180.000€
5. Cubrimiento para parque infantil: 50.000€
6. Papeleras para reciclar: 30.000€
7. Aparcamiento: Zezen Plaza: 2.500.000€
8. Trabajos de limpieza de canalización de agua en huertas: 25.000€
9. Proyecto para zona peatonal y ciclable en Txiplau: 15.000€
10. Potabilizar la fuente de Guadalupe: 5.000€

Abotsanitz ha presentado 21 enmiendas a los presupuestos municipales por un valor de 3.220.500€. Divididas en diferentes comisiones que constituye el ayuntamiento, tales como, municipio, ayuntamiento y ciudadanía.

11. Habilitar zonas públicas de Alde Zaharra: 10.000€
12. Iluminación para barrio de Santiagotxo: 15.000€
13. Paneles informativos: 10.000€
14. Proyecto para rehabilitación de calles: 30.000€
15. Ayudas económicas para pequeños comerciantes: 15.000€
16. Ayudas económicas para el pago del impuesto de circulación de vehículos tanto para familias numerosas como para personas de movilidad reducida: 15.000€
17. Proyecto de crear un mural a través de auzolan en Mendelu: 3.500€
18. Mesa de movilidad: 10.000€
19. Proyecto de bidegorri Amute-Mendelu: 20.000€
20. Redacción Plan de igualdad: 6.000€
21. Hondarribia Katsikas Boluntario Taldea: 6.000€

**Abotsanitz ha votado en contra de los presupuestos municipales presentados por el equipo de Gobierno para 2017.** Esta decisión se basa en la experiencia acumulada que nos muestra la ineficacia de la gestión unilateral de dicho gobierno, traducida en, **el incumplimiento de las enmiendas (aprobadas en pleno) a los presupuestos de 2016.**

Consideramos que las necesidades reales de los hondarribitarras requieren de inversiones en cuyo cálculo y previsión debe tomar parte activa la población, eje básico de cualquier actuación municipal.

Tomando en cuenta la situación de las arcas municipales y los momentos que vivimos, el Ayuntamiento debe ofrecer más y mejores servicios al pueblo.

En el futuro, la confianza y el apoyo de Abotsanitz al actual gobierno dependerán del eficaz cumplimiento de los presupuestos municipales aprobados para 2017.

**Zaborrontziak sailkagarriak izan daitezela**  
Papeleras para reciclar



**Zezen plaza**  
**Aparkalekua**  
Aparcamientos





## Santiagotxo argiztapena

Alumbrado en Santiagotxo




[Informazio zabalagoa gure webean]

Amute  
San kristobal  
Portua auzoa

## Komun publikoak

Baños públicos




## Haur parkerako estalpea

Cubrimiento para un parque infantil



## Murala Mendelu Auzoan

Mural en el barrio de Mendelu



Kai zaharra  
Puntala

## Dutxak hondartzetan

Duchas en las playas



## Hondartza: Paretean estalpe bat

Tejado en la pared  
de la playa



## Guadalupeko iturriaren potabilizazioa egitea

Potabilizar la Fuente  
de Guadalupe



## Txiplau, oinezko eta bizikletaren- tzako eremua

Txiplau zona peatonal  
y ciclable



## Udalfilm Labor-Metraiak



Obra maestra  
Muy buena  
Buena  
Regular  
Mala

### Taxi Driver



*Acción*

Hondarribia eta Irungo taxien arteko hitzarmena lortu da, bi herri hauen arteko taxi zerbitzuen lankidetzaz ahalbidetzen duena. Honekin, Hondarribia eta Irun bere gain hartuko duen Erregimen Bereziko Gunea izendatzea eskatuko zaio Foru Aldundiari.

### Amor y Amistad



*Comedia*

Eusko Jaurjaritzarekin elkar-eragintasun hitzarmena sinatuko da. Honen bitartez, erakunde publikoek dokumentazioa konpartitu ahal izango dute, herritarrek administrazioarekin egin beharreko tramiteak errazteko asmoz.

### El Fuera de la Ley



*“Western”*

Kontu hartzaileak 2015eko ekitaldian egindako kontrol emaitzen txostena. Bertan ikus dezakegunez udalak zenbaitetan ez ditu betetzen legeak ezarritako prozedurak, ez diru sarrerei dagokienez ezta gastuei dagokienez ere. Abotsanitzentzat kezka-garria da Blues jaialdiaren inguruan, esate baterako, diru sarreraren inguruan aipatzen dena. Txosten honen arabera zenbait zerbitzuen kontratazioa legeak eskatzen dituen baldintzak bete gabe egin ziren, pertsonal kontratazioek ez zuten legezko prozedura jarraitu, etab.

### Que el Blues nos perdona



*Musical*

Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren 2014ko ekitaldiari buruzko informea. Erakunde honek egindako txostenean Arma Plaza Fundazioaren eginkizunak Udalak egitea gomendatzen du; Blues jaialdiaren diru kontuak ez direla argiak esaten du; udalaren langile taldea ez da egokitzen udalak dituen beharretara; kontratazio espedienteek ez dituztela legez ezarritako prozedurak betetzen; Udalak web orrian aurrekontuak argitaratzen ditu, ez ordean Kontu Orokorak eta Likidazioa, etab.

### El contable



*Suspense*

Attest Itc S.L. Enpresari, 2015ean egindako lanengatik, 72.600 € ordaintzea erabaki du Udalak urriko osoko bilkuran. Idazkariaren txostenak dioen bezala, “ez dago gastuaren aurretiazko baimenik”, “ez da inolako prozedurarik jarraitu lanen esleipena egiteko eta ez dago esleipenari dagokion inolako ebazpenik”. Kasu honetan, 39/2015 Legeak dioenez “los actos de las Administraciones Públicas son nulos de pleno derecho en los casos siguientes: (...) los dictados prescindiendo total y absolutamente del procedimiento (...)”.

### A 100 metros



*Comedia*

Autokarabaren Erabilera Erregulatzeko Proposamena - MOZIOA aurkeztu du Abotsanitz Udal Taldeak, Hondarribian autokarabana erabilera gero eta haundiagoa dugun honetan. Bertan erabilera hau arautzea eta zerbitzu-gune bat ezartzea eskatzen dugu. Mozio honen lanketa Gipuzkoako Autokarabaren Elkarteko kideekin batera burutu dugu eta aho batez onartua izan zen Udalbatzan.

### Cuatro bodas y un funeral



*Falso documental*

Ezkontza Arautegia – Hondarribiko Udala ezkontzak burutzeko arautegi bat ari da garatzen. Abotsanitzek zenbait proposamen egin ditu arautegia hobetze aldera; besteak beste, ohiko ezkontzak ahalik eta larunbat gehienetan burutu ahal izateko aukera izatea, hizkuntzan ez mugarik jartzea, gailu elektronikoa eta informatikoak erabiltzeko aukera aipatzea, etab.

# UDALGINTZA

# abotsanitz

Rogad al "Ayuntamiento de Hondarribia" y a la "Diputación Foral de Gipuzkoa" por el alma de:

## UN CICLISTA

Que ha fallecido tras ser arrollado por un coche mientras circulaba en bicicleta por el arcén de una calle de Hondarribia, ante la ausencia de un carril-bici.

**D.E.P.**

Rorate coeli desuper  
et  
nubes pluant lumen,  
aperiatur terra  
et  
germinet bidegorri.

Goi zeruak ihintzatu gaitzatu  
eta  
hodeiek euriztatu bezate argitasuna  
ireki bedi lurra  
eta  
erne bedi bidegorria.

**bizi ala hil, bidegorria egin!**